

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hilero 12 milioi euro inbertitzen dira Pirinioetako Autobian

Inbertsio horrekin 500 pertsona baino gehiago ari dira zuzenean lanean errepide horren 4. eta 5. tarteak egiten

Miércoles, 23 de marzo de 2011

Laura Alba Cuadrado Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak A-21 Pirinioetako Autobiaren 4. eta 5. tarteetako lanak bisitatu ditu gaur goizean. 4. tartearen %37 eginda dago, eta 5. tartearen, % 60.

Bisitan, kontseilariak gaur egun autobian egiten ari diren inbertsi-ahalegina azpimarratu du. "Une honetan –

esan du- 12 milioi euroko lana egiten ari da, hau da, Ebroren Ardatzeko saihebidetarako bati hilabete batean dagokion kopurua. Inbertsioak inpaktu handia du enpleguan, eta horri esker, 500 pertsona baino gehiago gaur hemen zuzenean lan egiten ari dira. Horrez gain, lanak amaitu ondoren, Nafarroaren ipar-ekialderako sarbideak hobetuko dira –Irunberri, Zangoza, Esa eta Erronkari eta Zaraitzu Pirinioetako ibarrak–; inguru hori bide-ardatz estrategiko berriaren txertatuta geratuko da, eta horrek garapen ekonomikoa bultzatuko du, antzeko azpiegiturekin gertatu den moduan". Ildo horretatik, kontseilariak autobian lanean Nafarroan duten erritmo ona egiaztatzen du, eta aurreikuspenen arabera 2011ko abenduan amaituko direla esan du.

Judasen Benta-Esa 4. tartearen lanen egoera

Pirinioen Autobiako Judasen Benta-Esa 4. tartearen %37 eginda dago. Tarte horrek 10,155 km-ko luzera du.

Irunberriko lotunean hasi eta Esa udal-barrutian amaitzen da, eta bertan azpiegitura horrek Nafarroan duen hurrengo eta azken tartearekin lotzen da, 5. tartearekin, Esa-probintziaren muga. Hauek dira tarte honetako egitura nagusiak: zubia Irati ibaiaren gainean, 200 m-ko luzerakoa, gaur egun 6 zutabeetatik 4 zimentatuta dituena; eta Ledeko tunela, 890 m-ko bi hodi paralelo dituena. Bi hodietan aurrera egiteko fasea amaitu da, 118 egunez horretan aritu ondoren, eguneko 24 orduetan, 8 orduko lanaldietan. Gaur egun, bi hodietan iragazgaitze eta drainatze lanak egiten hasi dira.

Aipatzekoa da une batzuetan tunelen ia aho guztietan aldi berean lan egin dela, eta egunean 50 m-ko aurrerapenak eta egunean 100 m-ko



Alba kontseilaria A-21 Pirinioetako Autobiako teknikariek eta langileekin.

txikitzeak lortu direla. Zehatz esanda, 2010eko azaroan bi tunelen artean 892 m aurreratu ziren, eta 2011ko otsailean, 1910 m txikitu ziren. Hori errekorra da Nafarroako indusketetan errepideetako tunelei dagokienez.

Esa-probintziako muga 5. tarteko lanen egoera

Esa-probintziako muga 5. tartearen %60 eginda dago. Tarte horrek 6,526 km-ko luzera du eta Esa herriaren iparraldetik probintziaren mugaraino doa. Hauek dira tarte honetako egitura nagusiak: Esako tunela, 1.585 m-ko bi hodi paralelok osatua, hau da, Foru Komunitateko autobioako tunelik luzeena, I. zubia, 456 m-ko luzerakoa (Pirinioetako Autobiako luzeena) eta II. zubia, 125 m-ko luzerakoa.

Esako tunelean zuloa Iruñeko aldetik egiten hasi ziren, eskuineko galtzadan, 2010eko maiatzaren 6an. Eskuineko galtzada urriaren 22an amaitu zen, eta ezkerreko galtzada, abenduaren 1ean.

Une honetan, bi hodietan iragazgaizte eta drainatze lanak egiten ari dira eta eskuineko galtzada estaltzeko lanak hasita daude, honezkero 300 m egin baitira.

Lanen deskripzioa

Gaur egun Pirinioetako Autobian gauzatzen ari diren 4. eta 5. tarteen luzera osoa 16,6 km-koa da, eta Nafarroan azpiegitura horrek duen tarterik konplexuenak dira. Izan ere, 2 tunel, tunel faltsu bat eta 3 zubi eraiki behar izan dira (bat Irati ibaiaren gainean, eta beste biek Esa urtegiko etorkizuneko zabalkuntza zeharkatuko dute).

Nafarroako Gobernuak 2009ko uztailean Pirinioetako Autobiaren 4. eta 5. tartekak egiteko lanak itzaleko bidesariaren bidez ABEE bati esleitu zizkion. Sozietate anonimoa enpresa hauek osatzen dute: Iridium Concesiones de Infraestructuras SA, Construcciones Mariezcurrena SL eta Construcciones Luciano Elcarte SL. ABEE hori errepidearen Nafarroako zatia mantentzeaz ere arduratuko da. Inbertsioaren zenbatekoa 222.085.119 eurokoa da.